

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO ELKARBIZITZA PLANA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko ekainean, Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkariak udal taldeoi jakinarazi zigun, sei hilabeteko epean, Udaleko Kultur Aniztasun Bulegotik lantzen ari ziren Elkarbizitzarako Planaren zirriborroa aurkeztuko zuela eta ekarpenak egiteko aukera zabalduko zitzaigula.

2018ko maiatzean, plana aurkeztu gabe jarraitzen zuenez, Udaltzak honako hau jasotzen zuen kontrol mozioa onartu zuen: *Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari irailerako parteka dezala Udaltza osatzen dugun taldeekin Kultur Aniztasun bulegotik lantzen ari den Donostiako Elkarbizitzarako Plana.*

Agintaldi berri honetan, “kultur aniztasun” kontzeptua desagertu da zinegotzien ordezkarietatik eta oraingoz ez dugu 2016an eginda behar zuen planaren inguruan berririk izan.

Urriko udaltzarrean delegatua interpelatu genuenean adierazi zigun 2017an plana egiteko kontratatutako enpresak egindako lana ez zitzaiola gustatu eta aditu baten laguntzarekin 2019an plan berria egiteko asmoa duela Udal Gobernuak.

Gauzak horrela, ezin dugu ulertu 2016tik eginda egon behar zen lan bat hiru urtez atzeratzea, eta, egungo testuinguru sozio-politikoan, xenofobiaren aurkako lana zein aniztasun kulturalaren aldeko apustua lehentasuntzat jo beharko litzatekeela uste dugu.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2020ko martxoan baino lehen Udalbatza osatzen dugun taldeekin parteka dezala Kultur Aniztasun bulegotik lantzen ari den Donostiako Elkarbizitzarako Plana.

Donostian, 2019ko azaroaren 14a

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia